

Gizakiez eta txakurrez

Javier Rojo

"Txakur-bihotza"
Mikhail Afanasievitx Bulgakov
euskaratzailea: Jose Morales
Ibaizabal, 2001

M.A. Bulgakov-ek (1891-1940) 1925ean idatzi zuen Jose Moralesen itzulpenean "Txakur-bihotza" deitzen den nobela hau. Baina dirudienez, 1969a arte ezin izan zen errusieraz argitaratu, Sobiet Batasuneko zentsuraren gustukoa ez baitzen. Liburuaren hitzurrean agertzen diren datu hauek ikusita, baten batek pentsa lezake kritika gogorra agertzen dela Urriaren Iraultzaren ondoren Errusian boterean jarri zen sistemaren kontra. Baina urrunetik ikusita behintzat, nobela horretan dagoen kritika oso lausoturik agertzen da. Zentsurak isilarazi nahi duena famatzeko joera harrigarria izaten du. Istorioan kontatzen da nola Moskuko mediku ospetsu batek burutu duen esperimendu baten ondorioz txakur batek aldaketa bitxiak jasaten dituen, gizaki edo erdi gizaki bihurtu arte. Txakur moduan zintzoa den izakia, gizaki bihurtzean maltzur eta gaizto portatzen da, eta esperimenduak porrot egingo du. Gaur egunetik ikusita, sistema politiko baten gaineko satira baino gehiago, argumentu honek manipulazio genetikoaren ondorioei buruzko istorio barregarria dirudi. Eta honetan ere ikus daiteke nobela labur honen balioa: urteak pasatu eta egoerak aldatu arren, oraindik ere ustekabeko gaurkotasuna mantentzen du istorioak.

El Correo, 2002-07-24

www.susa-literatura.com